

ABELTZAINZAREN INPAKTUAK INGURUMENEAN



**Egileak: Maddi Miguel
Intza Loiarte
Zurriola Ikastola
Lur Ingurumen zientziak
2. Batxilergoa
2022-04-05**

Aurkibidea:

Laburpena:	2
Zer da?	2
Euskal Herriko abeltzaintza ereduak:	2
Inpaktuak:	3
Makrogranjak:	4
Makrogranja, Caparroso:	5
Abeltzaintzaren amaieraren ondorioa:	6
Eranskinak:	7
Bibliografia:	8

Laburpena:

Hurrengo orrialdeetan, Euskal Herriko abeltzaintza eredu desberdinak azaltzen dira. Baita makrogranjak zer diren, eta Euskal Herrian, Nafarroan zehazki, dagoen makrogranja erraildoiari buruzko informazioa ematen da: animalien bizi-baldintzak, gaiari buruzko hainbat adituren ikerketen aipamenak... Baita, ingurunean sortzen dituen inpaktu larriak ikusi dezakegu eta abeltzaintza bukatu ezkeror ea zer gertatuko litzateke.

Zer da?

Abeltzaintza lehen sektore ekonomikoaren jarduera da, gizakiari onurak ematekoazienda edo abereak zaintzeaz arduratzen dena. Helburua, animaliak haztea da, ondoren haien haragia, esnea, larrua, arrautzak, ilea, ezti... lehengaitzat erabiltzeko eta aprobeztatzeko.

Euskal Herriko abeltzaintza ereduak:

2 mota daude: abeltzaintza intentsiboa eta estentsiboa.

Intentsiboa: abeltzaintza-ustiapen mota bat da, abereak ikuiluratuta daudena, eta pentsuekin elikatzen dira erabat edo zati handi batean. Atzerriko arraza hauatuei lotuta dago, teknika modernoak erabiltzen ditu, bazka eta pentsu konposatu inportatuen menpekotasuna handia du. Estentsiboa: abeltzaintza ustiapen mota bat da, abereei jaten emateko lur zabalak erabiltzen dituen. Arraza autonomoei eta lan teknika tradizionalei lotuta egoten da. Baina gaur egun, abeltzaintza mistorantz(intentsibo-estentsibo) bilakatzen ari da.

Eusko Jaurlaritzak adierazi du, EAEn ez dagoela makrogranjarik. Ezagutzera eman dituen datuen arabera, 15.487 ustiategi daude errolatuta, eta horietatik 11.249 dira abeltzaintza-ustiategiak. 2015eko datuen arabera, ustiategi horietatik 965 ekologiko bezala sailkatu ziren.

Nafarroan, aldiz, egoera ez da berdina. Bertan, 9.781 ustiategi daude, Landa Garapeneko foru departamentuaren 2019ko estatistiken arabera. Horietatik 8.756 ekoizpena dedikatzen dira, modu estentsiboan edo intentsiboan.

Abeltzaintza intentsiboaren adibide garbi bat, Caparrosoko makrogranja da. Aurrerago aztertuko duguna.

Inpaktuak:

Lehen sektore osoa da (nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza) Euskadin berotegi efektuko gasen (BEG) isurketa guztien %3ren erantzulea.

Inpaktuari dagokionez, ustiategi onuragarri baten eta ekosistemarentzat kaltegarria den beste baten arteko alde nagusia animalia kopurua da. Ustiategi handiek, erregai fosilak behar dituzte haien produktua hazi, bildu eta garraiatzeko.

Dentsitate handiko ustiategiei dagokienez, beste faktore kezkarri bat haien hondakinen kudeaketa da: "Animalien dentsitate handia problematikoa da ingurumenaren aldetik; izan ere, animaliek sortutako hondakinak oso onuragarriak eta beharrezkoak badira ere nekazaritza-ekosistemarentzat, lurrak ezin ditu kantitate handitan prozesatu, eta adibidez nitratoa, akuiferoetara eta azaleko uretara iragazten da, kutsatuz. Animalien dentsitate altuak usain-arazoak ere eragiten ditu, eta horrek landa-eremuetako ingurumena degradatzen du ", adierazi du Pablo Manzanok, ekologian doktoratuak, Madrilgo Unibertsitate Autonomoan.

Inpaktu lokalaz gain, eragina nabaritzen da planetako beste leku batzuetan, animaliak elikatzeko pentsuen ekoizpena kanpoan egiten delako. Horretarako, hainbat ekosistema deforestatuak dira, adibidez, pentsuentzako soja ekoizteko eremu bihurtzeko.

Berotegi-efektuko gasen munduko isurketen % 24 eta isurketa guztien % 14,5 abeltzaintzatik datoz, bai eta munduko garraiotik ere.

Munduko deforestazioaren % 80 nekazaritzaren hedapenaren ondorioa da, eta gehiena animaliak elikatzera bideratzen da, pertsonak elikatu beharrean

Makrogranjak:

Makrogranja bat abeltzaintza industrialeko instalazio bat da, eta animalien dentsitatea oso handia da. Bertan, milaka txerri, behi eta oilaskoa pilatzen dira. Oilaskoaren kasuan, milloira iristen dira.

50 urteetan aragia produzitzen duten herrialdeak, Txina esate baterako, okel gehiena produzitzen duen herrialdenetako bat, urteko 10 milioi okel produzitzetik 2019an, urteko 80 milioi produzitzera iritsi da. Espainian, 1970ean milioi bat kilo produzitzen ziren urtean, gaur egun, berriz, 7 milioi produzitzen dira. (Ikus 1 grafikoa). Haragi esportatzaile handiak Txina eta Ameriketako Estatu Batuak dira. (Ikus 2 grafikoa)

Makrogranja, Caparroso:

Nafarroako esplotazio honek gaur egun 3.500 behi ditu, baina 7.200eraino iristea aurreikusi dute. Gaur egun, egunero 896.000 litro ur kontsumitzen dituzte, urtean 129.274 tonaur zikin eta 19.584 tona simaur sortzen dituzte.

Animalien bizi duten egoeraz gain, ingurumen inpaktu handiak sortzen dituzte makrogranjek. Kasu honetan, behien gorotzak gertu dagoen Aragoi ibaiaren uretara iragazten dira. Horregatik, greenpeace erakunde ekologistak bere txostenean salatu du instalazio handi hauek ingurumenean duten eragina. Behien ur zikinak biltzen dituen putzuak ez ditu instalaziotik kanpoko iragazketak eragozten. Ondorioz, Aragoiko ibaiertzeko naturaguneak eta inguruko beste eremu batzuk pixkanaka kutsatzen ari dira. Bestetik, ibaiko puntu desberdinetan egindako nitratoaren hiru neurketen batez bestekoak, gizakiak ez kontsumitzea gomendatzen duten mailetara iristen dira: 64, 65, 77, 110 eta 220 miligramo nitrato litroko (mg/l). Osasunaren Mundu Erakundeak ezartzen du uretan baimendutako gehieneko maila 50 mg/l-koa dela. Nazioarteko azterketa epidemiologikoek gomendatzen dute 10 mg/l-ra murriztea. Nolanahi ere, nitratoaren balio desegokiek metahemoglobinemia sortzen dute, eta horrek arritmiak, konbultsioak, koma eta heriotza ere eragin ditzake sintomatologia larrietan.

Gainera, talde ekologistek, Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuari egindako informazio-eskaeren emaitzetan ikusi daitekenez, 2019az geroztik, enpresak ez du bete isurketen osaera kimikoari, lurzoruen azterketari edo lursailen jabeek idatziz emandako baimenei buruzko informazioa partekatzeko betebeharra.

Abeltzaintzaren amaieraren ondorioa:

Euskal Herrian dugun paisaia nekazaritza eta abeltzaintzaren ondorio da, ez da naturala, hau da gizakiaren erabileraren ondorioz sortutakoa da. Horregatik, garbi dago naturan egiten diren jarduerekin amaitzen bada, paisaia aldatu egingo dela, baina nolako aldaketak jasango ditu gure inguruneak ?


Abeltzaintzaren desagertzearekin, mendiko paisaia eta landa eremukoak aldatuko litzateke, paisai mota honen ordez lur sail sasituak ikusiko genituzke.

Bestetik, abeltzaintza estentsiboa desagertuko balitz hainbat ondorio sortuko lirateke. Hasteko, abeltzaintza dagoen ekosistemetan desoreka bat egongo zen, animalia gabe lurra ezingo zen ongarritu eta materia organikoa gutxitu egingo zen. Gainera, lehen aipatu bezala paisai asko sasiz beteta geratuko ziren eta horrek ondorio batzuk ekarriko lituzke, adibidez, ingurumenari dagokionez, lurzoruan karbono-finkapena murriztuko litzateke, larreak gutxituko ziren eta biodibertsitatea galduko zen. Bestalde, baso eta larreen eremua heterogeneo denez, sasi gune batean baino espezie gehiago bizi dira eta espezie asko kaltetuko ziren. Azkenik, baso suteak egoteko arriskua handitu egingo zen, animaliek mendiak garbitzen dituzte eta suteak zabaltzea ekiditeko, oso garrantzitsuak dira, ondorioz, sute larriagoak sortzen badira, balio handiko paisaia galdu eta ingurunea hondatuko zen.

Eranskinak:


1 Grafikoa:

Makrogranjak(produkzioa):



2 Grafikoa:

Exportadore handiak:



Bibliografía:

- Collantes, J. C. A. (2021). Euskal landa paisaia abeltzaintzaren uztearen aurrean. *Sancho el sabio: Revista de cultura e investigación vasca*, (44), 126-154.
- *EAEko nekazaritza-ereduaren «jasangarritasuna» nabarmendu dute Lakuak eta sindikatuek*. (2022, January 13). naiz:. Retrieved April 4, 2022, from <https://www.naiz.eus/eu/info/noticia/20220113/eaeko-nekazaritza-ereduaren-jasangarritasuna-nabarmendu-dute-lakuak-eta-sindikatuek>
- *Adierazpena EAE-ko nekazaritza eta abeltzaintzako sektorearen alde, jasangarritasunaren eredu*. (2022, January 13). Agencia de Noticias. Retrieved April 4, 2022, from <https://www.agenciadenoticias.es/2022/01/13/adierazpena-eae-ko-nekazaritza-eta-abeltzaintzako-sektorearen-alde-jasangarritasunaren-eredu/>
- *Gaur argitaratu den ikerketa berri baten arabera, “kontsumitzen dugun haragi guztiak ez du eragin bera klima-aldaketan”*. (2020, October 16). BC3 Basque Centre for Climate Change. Retrieved April 4, 2022, from <https://info.bc3research.org/eu/2020/10/16/gaur-argitaratu-den-ikerketa-berri-baten-arabera-kontsumitzen-dugun-haragi-guztiak-ez-du-eragin-bera-klima-aldaketan/>
- Olaizola, A. (2022, February 14). *El debate de las macrogranjas salpica a la explotación intensiva en Navarra*. Diario de Navarra. Retrieved April 4, 2022, from <https://www.diariodenavarra.es/noticias/negocios/dn-management/2022/02/14/el-debate-macrogranjas-salpica-explotacion-intensiva-navarra-517341-2541.html>
- GONZALO, A. (2021, March 24). *Macrogranja de Caparroso*. RTVE.es. Retrieved April 4, 2022, from <https://www.rtve.es/television/20210324/macrogranja-caparroso/2083411.shtml>

- Ruiz, M. R., Balbás, A., Rivas, P., & Zugasti, I. (2021, December 9). *Agroecología | Una pesadilla de leche y mierda*. El Salto. Retrieved April 4, 2022, from <https://www.elsaltodiario.com/agroecologia/una-pesadilla-de-leche-y-mierda>
- Miranda, D. (2022, January 15). *Qué es una macrogranja y cómo impacta en el medioambiente*. National Geographic. Retrieved April 4, 2022, from https://www.nationalgeographic.com.es/naturaleza/que-es-macrogranja-y-como-impacta-medioambiente_17760
- *Abeltzaintzako ekoizpena eta ingurumen-inpaktua | Consumer*. (n.d.). Consumer Eroski. Retrieved April 4, 2022, from <https://www.consumer.es/eu/seguridad-alimentaria-eu/abeltzaintzako-ekoizpena-eta-ingurumen-inpaktua.html>
- *Abeltzaintzak klima aldaketan duen eragina arintzeko estrategia berriak - Neiker*. (2021, August 11). NEIKER. Retrieved April 4, 2022, from <https://neiker.eus/eu/berriak/abeltzaintzak-klima-aldaketan-duen-eragina-arintzeko-estrategia-berriak/>
- *¿Qué pasaría si desapareciese la ganadería extensiva por el Cambio Climático?* (n.d.). LiveAdapt. Retrieved April 2, 2022, from <https://liveadapt.eu/que-pasaria-si-desaparece-la-ganaderia-por-el-cambio-climatico/>